



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuek bezala”

2021eko urtarrilaren 31
Urteko 4. igandea (B)

Marko 1, 21-28

Kafarnaumen sartu ziren. Eta, larunbatean sinagogara joanik, irakasten hasi zen Jesus. Haren irakaspenaz txunditurik zegoen jende guztia, nagusitasunez irakasten baitzien eta ez lege-maisuek bezala.

Bazen, hain zuzen, sinagoga hartan espiritu gaiztoaren menpe zegoen gizon bat. Eta oihuka ekin zion:

-Zer duk gurekin, Nazaretoko Jesus? Gu hondatzera al hator? Bazekiat nor haizen: Jainkoaren Santua.

Jesusek gogor eraso zion: -Isil hadi eta irten horrengandik!

Espiritu gaiztoak astinaldi gogorra eman zion eta, garrasi handia eginez, atera egin zen harengandik. Guztiz ikaraturik gelditu ziren denak, elkarri galdezka: “Zer dugu hau? Irakaspen berria, eta nolako nagusitasunez emana gainera! Espiritu gaiztoei ere agintzen die eta hauek esana egiten!”

Laster zabaldu zen Jesusen entzutea Galilea aldeko bazter guztietara.

Zapatuz deabrudun bat osatuz, bere ahalmen eta askatasuna agertzen ditu.

IRAKASTEKO JARRERA BERRIA

Jose Antonio Pagola

Harrigarria da pasadizoa, eta hunkigarria. «*Sinagoga*» gertatu da guztia, ofizialki Legea irakatsi ohi duten lekuan, eta irakasle baimenduek irakatsi ohi dutenez. «*Larunbatean*» gertatu da, beren buruzagien iruzkinak entzuteko judu betetzailleak bileratu ohi diren egunean. Ingurumari horretan ekin dio Jesusek, lehenengo aldiz, «*irakasteari*».

Ez da ezer esaten haren hitzen edukiaz. Hemen ez da hori axola duena, baizik Jesusen esku-hartzeak sortu duen zirrara. Harridura eragin du, eta mirespena. Jendeak harengan zerbait berezia sumatu du, ordu arteko beren maisu erlijiosoengan ez bezalako zerbait: Jesusek «**ez du irakasten lege-maisuek bezala, baizik aginpidez**».

Doktoreek erakundearen izenean irakasten dute. Tradizioei atxikitzen zaizkie. Behin eta berriz aipatzen dituzte iraganeko maisu ospetsuak. Legea ofizialki interpretatzeko duten eginkizunetik datorkie beren aginpidea. Bestelakoa da Jesusen aginpidea. Ez dator erakundetik. Ez da tradizioan oinarritzen. Beste bat da honen iturria. Jainkoaren Espiritu bizi-emalez betea da.

Berehala egiaztatu ahal izango dute. Ustekabean, deabruak hartua den batek garrasika eten du Jesusen irakaspena. Ezin jasan du hau. Izutua dago: «*Gu suntsitzea etorri al zara?*» Gizon hari ondo zihoakion lege-maisuen irakaspena entzutea. Zergatik sentitu du orain bere burua mehatxatua?

Jesus ez dator inor suntsitzera. Hain juxtu, haren «aginpidea» jendeari bizia ematean datza. Haren irakaspenak gizartu egiten du jendea, eta askatu esklabotzatik. Jainkoagan konfiantza izateko gonbit dira haren hitzak. Barnea oinazetua duen gizon harentzat albisterik ona da berez Jesusen mezua. Jesusek gizona sendatu duenean, harriduraz dio jendeak: «aginpidez irakaste hau gauza berria da».

Inkestek diote Elizaren hitza aginpidea eta sinesgarritasuna galtzen ari dela. Ez da aski agintari bezala hitz egitea, Jainkoaren Berri Ona hots egin ahal izateko. Ez da aski tradizioa zuzen transmititzea, bihotza fedearen pozera ireki ahal izateko. Premiazkoa ezinbestean «**irakasteko jarrera berria**» da.

Ez gara «lege-maisu», baizik Jesusen ikasle. Haren mezua behar dugu eman, eta ez geure tradizioak. Bizia sendatuz behar dugu irakatsi, eta ez jendeari kaskoa ideologiaz betez. Jesusen Espiritua behar dugu hots egin, eta ez geure teologiak.